

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

381/2018 Foru Agindua, ekainaren 18koa, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuarena. 232 eredua onartzea: loturiko eragiketei buruzko eta zerga paradisutzat jotzen diren herrialdeei edo lurraldeei lotutako eragiketa eta egoerei buruzko aitorten informatiboa

Abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak, sozietateen gaineko zergarenak, lotutako entitateen dokumentazio betebeharrak arautzen ditu 43. artikuluan. Dokumentazio betebeharra eta informazioa eman beharra ez dira gauza bera.

Hain zuzen ere, Sozietatearen gaineko zergaren Arautegiak (abuztuaren 1eko 41/2014 Foru Dekretuaren bidez onartzen denak) 16. artikuluko 3. idatz zatian xedatzen du zergapekoek Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren foru aginduan ezartzen den bezala eman beharko dutela lotutako eragiketen inguruko informazioa.

Informazio hori emateko, taula egokiak betetzen izan dira sozietateen gaineko zergaren aitortpenerako 200 ereduan. Aitorten horretan zerga paradisutzat jotzen diren herrialde edo lurraldeei lotutako eragiketen eta egoeren gaineko informazioa ere ematen izan da.

Hala ere, 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera hasitako zergaldietako aitortpenetarako hautatu da loturiko eragiketei buruzko informazioa eta zerga paradisutzat jotzen diren herrialdeei edo lurraldeei lotutako eragiketa eta egoerei buruzko informazioa (esan bezala, 200 ereduan ematen izan dena) sozietateen gaineko zergaren aitortpenetik beste aitorten informatibo batera aldatzea. Aitorten informatibo berria horrelako eragiketa eta egoeren berri eman behar duten entitateek baino ez dute aurkeztu beharko.

Helburua hizpide hartuta, batetik, uste dugu egokiagoa dela taula horiek, informazioa emateko baizik ez direnak, aitorten informatibo batean agertzea; bestetik, sozietateen gaineko zergaren aitortpenetik taula informatibo horiek (batzuetan betetzen gaitz izaten direnak) ezabatuz gero, aitortpenak berekin dakartzan zeharkako zerga zamak arinduko dira.

Zerga zamak benetan murrizteko, ezinbestekoa da 232 eredu berria (loturiko eragiketei buruzko eta zerga paradisutzat jotzen diren herrialdeei edo lurraldeei lotutako eragiketa eta egoerei buruzko aitorten informatiboa) sozietateen gaineko zergaren aitortpena aurkezteko epealdia amaitu ondoko lau hiletan aurkeztea.

232 eredu berria onartzeaz gainera foru agindu honek arautzen du zer kasutan eta nolako mugekin eman beharko den honelako eragiketen inguruko informazioa:

“Lotutako pertsonekin edo entitateekin egindako eragiketei buruzko informazioa” taulan lehengo informazio bera eman beharko da: lotutako pertsonekin edo entitateekin egindako eragiketei buruzko informazioa, baldin eta eragiketen guztirako zenbatekoa 36.000 eurotik gorakoa bada (merkatuko balioa). 36.000 euroko muga horretan ez da sartzen BEZa, eta lotutako mota bereko pertsona edo entitate bakoitzarekin egindako eragiketetatik metodo berarekin balioetsitako en multzoari dagokio.

“Lotutako pertsonekin edo entitateekin egindako eragiketak, aktibo ukiezin jakin batzuen errenten murrizketa aplikatzen denean (37/2013 FA, 37. art. eta 19. xed. irag.)” taulan eta zerga paradisutzat jotzen diren herrialdeei edo lurraldeei lotutako eragiketa eta egoerei buruzko informazioa emateko bi tauletan eragiketa horiek adierazi behar dira, zenbatekoa gorabehera.

Beste alde batetik, administrazio publikoen ingurune estrategiko eta operatibo berrian, abenduaren 23ko 110/2008 Foru Dekretuaren bidez aitortpenak telematikoki aurkezteko baldintza eta betekizun orokorren esparrua arautzen da, eta ezartzen da Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak zehazten dituen aitortpenak horrela aurkeztu behar direla.

Horrenbestez, loturiko eragiketei buruzko eta zerga paradisutzat jotzen diren herrialdeei edo lurraldeei lotutako eragiketa eta egoerei buruzko informazioa emateko eredia onartu behar da, eta eredu horiek telematikoki aurkezteko baldintza orokorrak finkatu behar dira.

Zuzeneko Zergen Zerbitzuak horren harira emandako txostena ikusi da.

Horregatik, eta dagozkidan eskumenez baliatuz, hauxe

XEDATZEN DUT

1. artikulua. 232 eredia onartzea

232 eredia onartzen da: "Loturiko eragiketei buruzko eta zerga paradisutzat jotzen diren herrialdeei edo lurraldeei lotutako eragiketa eta egoerei buruzko aitortpen informatiboa". Eredua foru agindu honen eranskinean dago.

2. artikulua. 232 eredia aurkeztu behar dutenak

1. 232 eredia aurkeztu behar dute establezimendu iraunkorraren bidez diharduten sozietateen gaineko zergaren eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren zergadunek, bai eta atzerrian eratuta egonik Arabako Lurralde Historikoan errentak esleitzeko araubidean ari diren entitateek ere, Arabako araudia aplikatzen zaien kasu guztietan, baldin eta lotutako pertsonekin edo entitateekin egindako eragiketen edo zerga paradisutzat jotzen diren herrialdeei eta lurraldeei lotutako eragiketen eta egoeren berri eman behar badute hurrengo idatz zatietan xedatzen denaren arabera.

2. Sozietatearen gaineko zergaren Arautegiak (abuztuaren 1eko 41/2014 Foru Dekretuaren bidez onartzen denak) 16. artikuluko 3. idatz zatian xedatzen denaren arabera, zergadunek lotutako pertsonekin edo entitateekin egindako eragiketei buruzko informazioa honako kasu honetan bakarrik eman behar dute: eragiketen guztirako zenbatekoa 36.000 eurotik gorakoa bada (merkatuko balioa).

36.000 euroko muga horretan ez da sartzen BEZa, eta lotutako mota bereko pertsona edo entitate bakoitzarekin egindako eragiketetatik metodo berarekin balioetsitako en multzoari dagokio.

3. Honako erregela hauek hartu behar dira kontuan lotutako pertsona edo entitateekin egindako eragiketen inguruko informazioa eredian adierazteko:

a) Kontabilitateko gastua edo sarrera dakarten eragiketetan, eragiketaren kontabilitate sortzapenaren irizpidea aplikatuko da, kobrantzaren edo ordainketaren diru korrontea noiz gertatu den kontuan hartu gabe.

b) Kontabilitateko gasturik ez sarrerarik ez dakarten eragiketetan, eragiketa noiz egin den hartuko da kontuan, sortutako diru korrontea noiz gertatu den aintzat hartu gabe.

c) Ekitaldi bat baino gehiagotan luzatzen diren eragiketetan, baldin eta eragiketaren zenbatekoa 36.000 eurotik gorakoa bada eta eragiketa indarrean badago hainbat ekitalditan, eragiketa egin den ekitaldiko informazio gehigarrian bakarrik aitortu behar da.

Denboran zehar irauten duten zerbitzugintzei dagokienez, 36.000 euroko zenbatekoa konputatzeko eta aitortpena noiz egin behar den zehazteko eragiketak ekitaldi bakoitzean eduki duen balioa hartu behar da aintzat.

4. Eragiketa batzuei buruz ez dago informazioa eman beharrik; hona:

a) Zerga baterakuntzaren araubideko talde berean dauden entitateen arteko eragiketak, baldin eta taldeak 37/2013 Foru Arauko VI. tituluko VI. kapituluan ezartzen den araubidea hautatu badu.

b) Ekonomia intereseko taldeek, Ekonomia Intereseko Taldeei buruzko apirilaren 29ko 12/1991 Legean ezartzen denari jarraiki, eta aldi baterako enpresa elkarteek (maiatzaren 26ko 18/1982 Legeak, enpresa taldeen eta aldi baterako elkarten eta eskualdeko industria garapenerako sozietateen zerga araubideari buruzkoak, arautzen dituenek eta erregistro berezian inskribatuta daudenek) beren kideekin edo 37/2013 Foru Arauko VI. tituluko VI. kapituluan ezartzen den araubidea hautatu duen talde bereko beste entitate batzuekin egiten dituzten eragiketak.

c) Salmenta eskaintza publikoen edo baloreak eskuratzeko eskaintza publikoen esparruan egiten direnak.

d) Kreditu entitateek Espainiako Bankuak onartutako babeserako erakunde sistema baten bitartez egiten dituzten eragiketak, hain zuzen ere sistema horrek aplikatzen zaion araudian ezartzen diren betekizunak betetzearekin lotuta daudenak.

5. Aktibo ukiezin jakin batzuen lagapenak sortzen dituen errenten murrizketa (37/2013 Foru Araua, 37. artikulua eta hemeretzigarren xedapen iragankorra) aplikatzen zaien entitateek eskatzen den informazioa eman behar dute lotutako pertsonekin edo entitateekin egindako eragiketei buruz, lagapenaren zenbatekoa gorabehera; gainera, ezin izango da aplikatu lotutako gainerako eragiketarako ezarritako informazioa eman behararen salbuespenik.

6. Zerga paradisutzat jotzen diren herrialdeei edo lurraldeei lotutako eragiketa eta egoerei buruzko informazioa kasu honetan eman behar da: zergadunak zerga paradisutzat jotzen den herrialde edo lurralde batean eragiketaren bat egiten badu edo halako batekin lotutako baloreen bat daukanean, zenbatekoa gorabehera.

3. artikulua. 232 ereduaren edukia

1. "Loturiko eragiketei buruzko eta zerga paradisutzat jotzen diren herrialdeei edo lurraldeei lotutako eragiketa eta egoerei buruzko aitorten informatiboa" egiteko 232 ereduaren lehen atalean lotutako pertsonekin edo entitateekin egindako eragiketak aitortu behar dira: alde batetik sarrera eragiketak zehaztu behar dira eta beste alde batetik ordainketa eragiketak, eta ezin dira konpentsatu, nahiz eta kontzeptu berekoak izan. Lotutako mota bereko pertsona edo entitate bakoitzarekin egindako eragiketak, metodo berarekin balioetsitakoak, multzokatuta agertu behar dira. Mota berekoak izan arren metodo desberdinak erabiliz balioetsitakoak erregistro bereizietan aitortu behar dira. Sarrera edo ordainketa eragiketa bakoitzari buruzko datu hauek zehaztu behar dira:

a) Lotutako pertsonaren edo entitatearen identifikazio fiskaleko zenbakia.

b) Lotutako pertsona edo entitatea pertsona fisikoa edo juridikoa denez.

c) Lotutako pertsonaren edo entitatearen izen-abizenak edo sozietate izena.

d) Lotura mota, Sozietateen gaineko zergaren 37/2013 Foru Arauak 42.3 artikuluan xedatzen duenaren arabera; kode hauetako bat ezarri behar da:

- 01: Entitate bat eta bertako bazkideak edo partaideak.

- 02: Entitate bat eta bertako kontseilariak edo administratzaileak.

- 03: Entitate bat eta bertako bazkide, partaide, kontseilari edo administratzaileen ezkontideak, izatezko bikotekideak edo hirugarren mailara arteko senideak.

- 04: Talde bateko bi entitate.

- 05: Entitate bat eta beraren taldeko beste entitate bateko kontseilariak edo administratzaileak.

- 06: Entitate bat eta berak zeharka gutxienez ehuneko 25eko partaidetza daukan beste entitate bat.

- 07: Bazkide, partaide, kontseilari edo administratzaile berek edo haien ezkontideek, izatezko bikotekideek edo hirugarren mailara arteko senideek gutxienez ehuneko 25eko partaidetza duten bi entitate.

- 08: Egoitza Espainiako lurraldean daukan entitate bat eta berak atzerrian dauzkan establezimendu iraunkorrak.

- 09: Egoitza Espainiako lurraldean ez daukan entitate bat eta berak lurralde horretan dauzkan establezimendu iraunkorrak.

- 10: Zerga kooperatiba taldeen araubidean ordaintzen duen talde bateko bi entitate.

e) Lotutako pertsonaren edo entitatearen egoitza Espainiako lurraldean badago, probintziaren kodea; egoitza Espainiako lurraldean ez badago, egoitza dagoen herrialdearen kodea.

f) Eragiketa mota. Eragiketaren identifikazio kodea jarri behar da; hona zerrenda:

- 01: Salmentak.

- 02: Erosketak.

- 03: Maileguak.

- 04: Errentamenduak.

- 05: Erabilera lagapenak.

- 06: Beste zerbitzugintza batzuk.

- 07: Beste batzuk.

g) Eragiketa sarrera edo ordainketa izan den.

h) Balioesteko metodoa. Metodoak Sozietateen gaineko zergaren 37/2013 Foru Arauko 42.4 artikuluan ezartzen dira; hona zerrenda:

- 01: Prezio libre alderagarriaren metodoa.

- 02: Kostu gehituaren metodoa.

- 03: Birsalmenta prezioaren metodoa.

- 04: Eraitza banatzeko metodoa.

- 05: Eragiketa guztien marjina garbiaren metodoa.

- 06: Oro har onartutako beste metodo batzuk.

i) Eragiketaren zenbatekoa, balio erantsiaren gaineko zergaren karga aplikatu gabe.

2. "Lotutako pertsonekin edo entitateekin egindako eragiketak, aktibo ukiezin jakin batzuen errenten murrizketa aplikatzen denean (37/2013 FA, 37. art. eta 19. xed. irag.)" taulan datu hauek adierazi behar dira:

a) Lehenbizi, entitate nagusiaren identifikazio datuak (identifikazio fiskaleko zenbakia; izena; egoitza Espainiako lurraldean egonez gero, probintziaren kodea; egoitza Espainiako lurraldean ez badago, dagoen herrialdearen kodea).

Jarraian, murrizketa aplikatzen den errentak, lotutako pertsona edo entitateko multzokatuta, datu hauek xehatuta:

b) Lotutako pertsonaren edo entitatearen identifikazio fiskaleko zenbakia.

c) Lotutako pertsona edo entitatea pertsona fisikoa edo juridikoa denez.

d) Lotutako pertsonaren edo entitatearen izen-abizenak edo sozietate izena.

e) Lotutako pertsonaren edo entitatearen egoitza Espainiako lurraldean badago, probintziaren kodea; egoitza Espainiako lurraldean ez badago, egoitza dagoen herrialdearen kodea.

f) Lotura mota, Sozietateen gaineko zergaren 37/2013 Foru Arauak 42.3 artikuluan xedatzen duenaren arabera; kode egokia hautatu behar da aurreko idatz zatiko d) letrako zerrendan.

g) Eragiketaren zenbatekoa murrizketa aplikatu aurretik, balio erantsiaren gaineko zergaren karga sartu gabe.

3. "Zerga paradisutzat jotzen diren herrialdeei edo lurraldeei lotutako eragiketak eta egoe-rak" atalean datu hauek zehaztu behar dira:

a) Zerga paradisutzat jotzen diren herrialdeei edo lurraldeei lotutako eragiketen taula:

1. Zerga paradisutzat jotzen den herrialde edo lurralde batean egoitza duten pertsonekin edo entitateekin egindako (edo haiek egindako) eragiketa bakoitzaren deskripzioa, eta halako herrialde edo lurralde batean egoitza duten pertsonekin edo entitateekin zuzenean edo zeharka egindako eragiketen zerbitzu gastuak, bai eta horietan egindako inbertsioak eta gastuak ere.

2. Eragiketa bakoitza egin den pertsonaren edo entitatearen izena edo izendazioa.

3. Lotutako pertsona edo entitatea pertsona fisikoa edo juridikoa denez.

4. Arauz zerga paradisutzat jotzen den herrialdearen edo lurraldearen gakoa.

5. Inbertsioa edo gastua egiten den edo eragiketa bakoitza zeharka edo zuzenean egiten den pertsonak edo entitateak egoitza daukan herrialdea edo lurraldea, arauz zerga paradisutzat jotzen dena.

6. Aurreko 1. idatz zatian aipatzen diren eragiketa edo gastu edo inbertsio bakoitzaren zenbatekoa (benetako balioa adierazi behar da).

b) Aitorpeneko aldia amaitu den egunean zerga paradisutzat jotzen diren herrialde edo lurraldeetan eduki diren baloreen taula:

1. Arauz zerga paradisutzat jotzen den herrialde eta lurraldeko egoera adierazten duen gakoa ezarri behar da; hona zerrenda:

– A gakoa: Arauz zerga paradisutzat jotzen diren herrialde edo lurraldeetan egoitza duten entitateen funts propioen baloreak.

– B gakoa: Halako herrialde edo lurraldeetan eratuta dauden inbertsio kolektiboko entitateen baloreak.

– C gakoa: Halako herrialde edo lurraldeetan negoziazio merkatuan kotizatzen duten errenta finkoko baloreak.

2. Partaidetza hartutako entitatea edo baloreak jaulki dituen entitatea. Partaidetza hartutako entitatearen izena edo izendazioa (aurreko A edo B gakoa) edo baloreak jaulki dituen entitatearena (C gakoa) adierazi behar da.

3. Arauz zerga paradisutzat jotzen den herrialdea edo lurraldea, honako kode hauen arabera:

– A gakoa: Aurreko idatz zatian aipatzen den zutabeen A ezartzen bada, partaidetza hartutako entitatearen egoitza dagoen herrialdea edo lurraldea.

– B gakoa: Aurreko idatz zatian aipatzen den zutabeen B ezartzen bada, partaidetza hartutako entitatea eratuta dagoen herrialdea edo lurraldea.

– C gakoa: Aurreko idatz zatian aipatzen den zutabeen C ezartzen bada, baloreak bigarren mailako merkatuetan kotizatzeko onartuta dauden herrialdea edo lurraldea.

4. Arauz zerga paradisutzat jotzen den herrialdearen edo lurraldearen gakoa.

5. Baloreen eskuraketa balioa; erosketa prezioa ezarri behar da, noiz eskuratu diren kontuan hartu gabe.

6. Aurreko idatz zatian aipatzen den zutabeen A edo B jartzen bada, baloreei dagokien partaidetza ehunekoak.

4. Artikulu honetan aipatzen den informazioa eurotan eman behar da.

4. artikulua. 232 eredia aurkezteko epealdia

232 eredia, "Loturiko eragiketei buruzko eta zerga paradisuztat jotzen diren herrialdeei edo lurraldeei lotutako eragiketa eta egoerei buruzko aitorten informatiboa"; aitorten zergaldia amaitu ondoko hamar hileko aldiaren ondoko hilean aurkeztu behar da.

5. artikulua. 232 eredia aurkezteko modua, baldintza orokorrak eta telematikoki aurkezteko prozedura

1. 32 eredia, "Loturiko eragiketei buruzko eta zerga paradisuztat jotzen diren herrialdeei edo lurraldeei lotutako eragiketa eta egoerei buruzko aitorten informatiboa"; Internet bidez aurkeztu behar da nahitaez, baliabide telematikoez baliatuz.

2. 232 eredia betetzeko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak prestatutako "Zerga ereduak" laguntza programa erabili behar da; eredia baliabide telematikoez baliatuz aurkeztu behar da nahitaez, Aldundiaren egoitza elektronikoa erabiliz (hemendik aurrera "Diputacion Digital"). Ereduan aitortenaren identifikazio zenbakian adierazi behar da: Zenbakia sekuentziala izan behar da eta honela osatu behar da: lehen hiru digituak ereduaren kodekoak izan behar dira (232) eta hurrengo laurak ekitaldikoak.

Laguntza programa Arabako Foru Aldundiaren webgune ofizialetik www.araba.eus deskargatu daiteke eta horren bitartez foru arau honek onartzen duen eredia eskura daiteke.

3. 232 eredia telematikoki aurkezteko prozedura zergapeko batzuek eredu jakin batzuk Internet bidez telematikoki aurkezteko baldintza orokorrak eta prozedura ezartzen dituen 39/2010 Foru Aginduko 3. artikuluan ezartzen da.

Hain zuzen ere:

1. Aitortzailea Arabako Foru Aldundiaren Zergadunen Errolda Bakarrean egon behar da aitortpena aurkeztu aurretik, urtarrilaren 25eko 3/2011 Foru Dekretuak ezartzen duenarekin bat etorritik.

2. Aitortzaileak, edo beraren ordezkariak, bestela, "Diputacion Digital" webguneko zerbitzuak erabiltzeko baldintzak bete behar ditu, apirilaren 5eko 26/2011 Foru Dekretuak, Arabako Foru Aldundiaren Egoitza Elektronikoa sortzen duenak, ezartzen duenarekin bat etorritik (dekretu hori azaroaren 29ko 74/2011 Foru Dekretuak aldatzen du).

3. Entitate laguntzaileek nahitaez erabili behar dute 232 eredia "Zerga ereduak" programaren bidez zuzenean erabiltzeko aukera.

Xedapen gehigarri bakarra

Aldaketa: 39/2010 Foru Agindua, otsailaren 3koa, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuarena, baldintza orokorrak eta prozedura ezartzen dituen zergapeko eta eredu jakin batzuk Internet bidez modu telematikoa aurkezteko.

Otsailaren 3ko 39/2010 Foru Arauko 1. artikuluko lehen idatz zatia aldatzen da eta honela geratzen da:

"Bat. Foru agindu hau zerga aitorten hauetan aplikatuko da:

Urteko laburpenak eta informazio aitortenak:

— 180 eredia (Hiri higiezinaren errentamenduaren ondoriozko etekinei aplikatutako atxikipenen eta konturako sarreren urteko laburpena).

- 182 eredia (Jasotako emari, dohaintza eta ekarpenei eta egindako xedatzeei buruzko aitorten informatiboa).
- 184 eredia (Errentak esleitzeko araubidean dauden entitateen urteko aitorten informatiboa).
- 190 eredia (Lanaren etekinei, jarduera ekonomiko batzuen etekinei eta sariei aplikatutako atxikipenen eta konturako sarreren urteko laburpena).
- 193 eredia (Kapital higigarrien etekinei aplikatutako atxikipenen eta konturako sarreren urteko laburpena).
- 194 eredia (Urteko laburpen aitortena: besteren kapitalak jaso eta erabiltzearen adierazgarri diren mota guztietako aktiboak eskualdatu, amortizatu, ordaindu, trukatu edo bihurtuta lortutako errenten eta kapital higigarriaren etekinen gainean egin beharreko atxikipenak eta konturako sarrerak).
- 340 eredia (Balio erantsiaren gaineko zergaren Arautegiko 62.1 artikuluan aipatzen diren erregistro liburuetan jasotako eragiketei buruzko aitorten informatiboa).
- 347 eredia (Hirugarren pertsonekin egindako eragiketen urteko aitortena).
- 349 eredia (Batasunaren barruko eragiketen laburpen aitortena).
- 296 eredia (Atxikipenen eta konturako sarreren urteko aitortena).
- Balio erantsiaren gaineko zergaren hileko itzulketen erregistroa: alta/bajaren errolda eredia.
- 232 eredia (Loturiko eragiketei buruzko eta zerga paradisuat jotzen diren herrialdeei edo lurraldeei lotutako eragiketa eta egoerei buruzko aitorten informatiboa).

Autolikidazioak:

- 110 eredia (Lanaren etekinei, jarduera ekonomiko batzuen etekinei eta sariei aplikatutako atxikipenen eta konturako sarreren aitorten-likidazioa).
- 111 eredia (Lanaren etekinei, jarduera ekonomiko batzuen etekinei eta sariei aplikatutako atxikipenen eta konturako sarreren aitorten-likidazioa, enpresa handiek aurkeztu beharrekoa).
- 115-A eredia (Hiri higiezin errentamenduaren ondoriozko etekinei aplikatutako atxikipenen eta konturako sarreren aitorten-likidazioa).
- 117 eredia (Atxikipenen eta konturako sarreren eta konturako ordainketen autolikidazioak, zenbait errenta edo ondare irabazien gainekoa).
- 123 eredia (Kapital higigarrien etekinei aplikatutako atxikipenen eta konturako sarreren aitorten-likidazioa).
- 200 eredia (Sozietateen gaineko zergaren eta ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren aitorten-likidazioa, establezimendu iraunkorrek eta atzerrian eratauta egonik Arabako Lurralde Historikoan errentak esleitzeko araubidean ari diren entitateek aurkeztu beharrekoa).
- 220 eredia (Sozietateen gaineko zergaren aitorten-likidazioa, zerga baterakuntzako araubidearen dauden taldeetako sozietate nagusiek edo taldeburu diren entitateek aurkeztu beharrekoa).
- 303 eredia (Balio erantsiaren gaineko zergaren autolikidazioa).
- 310 eredia (Balio erantsiaren gaineko zerga, araubide erraztua: hiru hilean behin aurkeztu beharreko aitortena).
- 322 eredia (Balio erantsiaren gaineko zergaren hileko autolikidazioa. Entitate taldea. Banakako eredia).

- 353 eredia (Balio erantsiaren gaineko zergaren hileko autolikidazioa. Entitate taldea. Eredua erantsia).
- 390 eredia (Balio erantsiaren gaineko zerga, araubide orokorra: urteko aitortpen-likidazioa eta araubide berezien eranskina).
- 391 eredia (Balio erantsiaren gaineko zerga, araubide erraztua: urteko aitortpen-likidazioa).
- 581 eredia (Hidrokarburoen gaineko zerga: autolikidazioa).
- 582 eredia (Hidrokarburoen gaineko zerga: autolikidazioa).

AZKEN XEDAPENA

Foru agindu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta 2017ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan aplikatuko da.

Nolanahi ere, 2017an hasi eta amaitutako zergaldietako 232 ereduak (Loturiko eragiketei buruzko eta zerga paradisutzat jotzen diren herrialdeei edo lurraldeei lotutako eragiketa eta egoerei buruzko aitortpen informatiboa) 2018ko azaroaren 1etik 30era bitartean aurkeztu ahal izango dira.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko ekainaren 18a

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua

JOSÉ LUIS CIMIANO RUIZ

Ogasun zuzendaria

TERESA VIGURI MARTINEZ



Informazio aitorpena, eragiketa lotuei buruzkoa eta zerga paradisutzat jotzen diren herrialde edo lurraldeekin lotutako eragiketa eta egoerei buruzkoa.

ZERGALDI HONETAKO AUTOLIKIDAZIOA

**EREDUA
232**

Erakunde aitortzailearen identifikazioa		
IFZ	Sozietatearen izena	Telefonoa
Aurkezlea		
IFZ	Abizenak eta izena edo sozietatearen izena	
Harremanetarako pertsona		
IFZ	Abizenak eta izena edo sozietatearen izena	Telefonoa
Helbide elektronikoa		

Aitorpenaren identifikazio zenbakia... 9914

Aitorpen ordekoa 901 1 Aitorpen osagarria 901 2 Aurreko aitorpenaren identifikazio zk.. 902

LOTUTAKO PERTSONEKIN EDO ERAKUNDEEKIN EGINDAKO ERAGIKETAK

Ekitaldian zehar lotutako pertsona edo erakundeekin, egoilarrekin zein egoiliar ez direnekin, egindako eragiketak adierazi behar dira (kontabilitateko sortzapenaren irizpidea aplikatuta), 37/2013 Foru Arauko 42. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, eragiketa mota jakin bat biltzen dutenak balorazio metodo berbera erabiliz. Berezizta aitortu beharko dira diru sarrerako eragiketak eta ordainketa eragiketak, haien artean konpentsaziorik egin gabe, nahiz eta kontzeptu berekoak izan.

Lotutako pertsonaren edo erakundearen IFZ	F/J	Deiturak eta izena/Sozietatearen izena	Lotura mota (37/2013 FA 42.3 artikulua)	Probintzi a/Herrial. kodea	Eragiketa mota	Sarrera (I) Ordainketa (P)	Balorazio met. (37/2013 FA 42.4 artikulua)	Eragiketaren zenbatekoa
01	02	03	04	05	06	07	08	09

PERTSONA ETA ENTITATE LOTUEKIKO ERAGIKETAK, AKTIBO UKIEZIN JAKIN BATZUETATIK DATOZEN ERRENTEN MURRIZKETA APLIKATZEKO DEN KASUETAN (37/2013 FORU ARAUAREN 37. ARTIKULUA ETA 19. XEDAPEN IRAGANKORRA)

Sozietate nagusiaren identifikazio zk	Sozietate nagusiaren izena		Probintz./herrialderen kodea
20	21		22
Lotutako pertsonaren edo erakundearen IFZ	F/J	Deiturak eta izena/Sozietatearen izena (lotutako pertsonaren edo erakundearen)	Eragiketaren zenbatekoa
23	24	25	26

PARADISU FISKALTZAT HARTUTAKO HERRIALDE EDO LURRALDEEKIN ZERIKUSIA DUTEN ERAGIKETAK ETA EGOERAK

PARADISU FISKALTZAT HARTUTAKO HERRIALDE EDO LURRALDEEKIN ZERIKUSIA DUTEN ERAGIKETAK

Eragiketaren describapena	Paradisu fiskaltzat hartutako herrialde edo lurraldean egoitza duen pertsona edo entitatea	F/J	Herrial. gakoa	Paradisu fiskaltzat hartutako herrialde edo lurraldea	Eragiketaren zenbatekoa
40	41	42	43	44	45

PARADISU FISKALTZAT HARTUTAKO HERRIALDE EDO LURRALDEEKIN ZERIKUSIA DUTEN BALOREAK EDUKITZEA

Mota	Entitate partaidetua edo balore jaulkitzailea	Paradisu fiskaltzat hartutako herrialde edo lurraldea	Herrialderen gakoa	Eskuratze balioa	Partaidetza %
55	56	57	58	59	60